Iruña, 2020ko martxoaren 2a

Cintruénigoko Udalak uraren inguruko ingurumen-hezkuntza jardunaldi bat antolatu du, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza eta parte-hartzearekin

Martxoaren 5ean, Cintruénigoko Udalak urari buruzko ingurumen-hezkuntza jardunaldi bat antolatu du Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuarekin batera, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin. Jardunaldiarekin jarraitzeko bisita gidatu bat egingo da araztegira, martxoaren 7an, eta ikasleentzako tailer bat, martxoaren 12an.

Jardunaldian hornidura- eta saneamendu-sareetako ur-baliabideen optimizazioa jorratuko da Cintruénigoko Udaleko Uren arloak Erriberako 2020ko Partaidetzazko Toki-garapenaren Estrategia (PTGE) inplementatzeko dirulaguntzen deialdiaren baitan aurkeztutako proiektu baten bidez. Proiektu horrek 22.823,62 €-ko dirulaguntza jaso du: Europar Batasuneko LGENF funtsak 14.835,35 € eman dizkio, eta Nafarroako Gobernuak, berriz, 7.988,27 €. Halaber, 24.200 € jaso ditu udal funtsetatik.

Proiektuan Cascanteko Uren Mankomunitateak ere parte hartu du, eta lau jarduketa jasotzen ditu: hornidura-sarean ihesak detektatzeko sistemak instalatzea, kontadore bereziak puntu estrategikoetan jartzea, sarearen inbentario bat egitea, eta jardunaldi hau, biztanleriaren artean arduraz kontsumitzeko ideia hedatu eta sustatzea helburu duena. Horren guztiaren helburuak azpiegituraren kudeaketa hobetzea, erregistratu gabeko ur-kontsumoa murriztea eta herritarrak kontzientziatzea dira.

Jardunaldia interesa duen edonorentzako da, eta Avenida arte-zentroan (José María Ligues kalea, 21-23) izango da, 18:00etan. Óscar Beak, herriko alkateak, eta Bernardo Cirizak, Lurralde Kohesiorako kontseilariak, emango diote hasiera jardunaldiari. Lehenengo hitzaldi teknikoa Cintruénigoko uraren historiari buruzkoa izango da, eta hornidura eta ureztatzea izango ditu aztergai batez ere; Faustino León, Riegos de La Nava y Alhama sindikatuko idazkaria, izango da hizlaria. Ondoren, gaian adituak diren Jorge Silveriok, Ingyder ingeniaritzako zuzendari kudeatzaileak, eta José Ignacio Zuazu arkitektoak hartuko dute hitza.

19:30etik 19:45era atsedena egingo da, eta, horren ostean, Gregorio Berropek, NILSAko obra eta proiektuen zuzendariak, Hiri-erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailea aurkeztuko du; saneamendua eta arazketa jorratzen dituen enpresa publiko horrek 2016tik darama horretan lanean. Hitzaldi horren ondoren, Jorge Garcíak, Urbe ingeniaritzaren zuzendari kudeatzaileak, amaiera emango die hitzaldiei, eta publikoak galderak egiteko tartea izango du. Azkenik, Fernando Mendozak, NILSAko kudeatzaileak, jardunaldiari amaiera emango dio.

Martxoaren 7an, larunbata, herriko araztegira bisita gidatu bat egingo da. NILSAko monitore taldeak hondakin-uren prozesua azalduko du, etxe eta industrietan sortzen direnetik ibaira baldintza onenetan itzultzen diren arte. Jarduera pertsona orori zuzendua dago, doan da eta interesa duen edonork har dezake parte. Halaber, martxoaren 12an, osteguna, “Uraren balio ikusezina” tailerra egingo da La Paz institutuko ikasleekin, eta egunerokoan ura modu egokian nola erabili azalduko zaie bertan.

www.nilsa.com
Avenida de Barañáin, 22. *Barañaingo etorbidea, 22.* 31008 Pamplona/Iruña. **T** 848 430 800 **F** 848 430 832 **M** comunicacion@nilsa.com

Bisita eta tailer horiek enpresa publikoaren hezkuntza-programaren barruan daude. Enpresak Nafarroa osoko araztegietan, tailerrak ikasgelan, hitzaldi espezifikoak, behar bereziren bat (entzumena, ikusmena, mugitzeko zailtasunak edo kognitiboak) duten taldeentzako jarduera bereziak, jarduerak zahar-etxeetan eta beste jarduera espezifikoak antolatu ohi ditu; edozein pertsona edo kolektibok eska ditzake NILSAko webgunean: http://www.nilsa.com

Betidanik egon da natura eta inguruarekiko kezka handia Nafarroan, eta NILSA uraren erabilera egokiari buruz kontzientziatzen laguntzen ari da 1999tik. Hezkuntza-programa urte horretan jaio zen, eta 2019an inoiz baino jende gehiagok hartu zuen parte, marka guztiak hautsita; horrek herritarren inplikazioa handitzen ari dela erakusten du. Iaz, 9.155 lagunek hartu zuten parte programan, eta tailerrak izan ziren gehien eskatutako ekintzak (5.812 parte-hartzaile, 303 taldetan banatuta). 2018an 7.177 pertsonak hartu zuten parte, eta 2017an 6.903 izan ziren; goranzko joera izan du eta horrela mantentzea aurreikusten da.